

Lehen lehenik, Euskal Herriko Laborantza Ganbarako lan talde osoak (kolehendakariak, bulego eta biltzar nagusiko kideak baita langileak) urte berri on eta goxo bat desiratzen dizuete !

- 2022ko urtarrilaren 10a, astelehena, 14.30, Ainiza Monjolose

Biltzar publikoa | « Ipar Euskal Herriko zuhaitz lepatuak »

Kontserbazio erronkeri erantzun eta agroekologiaren baitako praktika enblematiko horren segipena bermatu nahi dute Akitania Berriko Natur Guneen Kontserbatorioak eta EHLG-k.

Proiektu hau ofizialki abiarazteko, publiko zabala informazio bilkura batera gonbidatu. Biltzarra urtarrilaren 10ean iraganen da, astelehenez, 14.30-tan EHLG-ko egoitzan, Ainiza Monjolosen.

Bilkura honen helburua, proiektuaren baitan pentsatuak diren ekintzen aurkeztea izanen da, hala nola :

- zuhaitz horien inbentario parte-hartzailea egitea lurraldean ;
- sentsibilizazio-ekintzak abian jartzea ; zuhaitz lepatuetaz eta abarrazteko maneretaz formakuntzak plantan ezartzea... ;
- laborarien esperientzia konkretuak entzutea, zuhaitz horien produktuak molde iraunkorren baloratuko dituzten sail ekonomikoak asmatzeko.

- 2022ko urtarrilaren 12 eta 19a, asteazkenak, 9h30, Ainiza Monjolose

Certiphyto agiria lehen aldikotz eskuratu

Bi egun iraunen duen Vivea formakuntza hunek produktu fitosanitarioak erabiltzeko gaitasuna emaiten du. Osagarria eta ingurumena zaintzeko helburu bikoitzak aztertuko dira.

Ikastaldi honen bukaeran eskuratuko den agiri indibidualak 5 urteko iraupena ukanen du.

- 2022ko urtarrilaren 18a, asteartea, Ainiza Monjolose

Koltzaren ibilbide teknikoak

Ikastaldi hau 4 egunerdez iraganen da, lehen eguna urtarrilaren 18an izanen delarik. Edukia :

- belar tzarrak, intsektuak eta koltzaren eritasunak ezagutu
- koltzaren garapen onarentzat lurraren kalitatea behatzen ikasi
- koltza eta lekadunak elkartzeko teknikak
- koltzaren ongarriztatzea kudeatu
- biomasa pizatzeko metodoa landu
- belar tzarren kentzea kudeatu

- EHLG-ren urtebetetzea : pesta gibelatua

Euskal Herriko Laborantza Ganbarak bere 17. urtebetetzea ospatzen du aurten. Osagarri egoera kondutan harturik, usaiako pesta urtarril huntan antolatzea konplikatuegia iduritzen zauku. Ondorioz, primaderara gibelatzea erabaki dugu. Horren berri aski goiz emanen dizuegu !

- Artaldeak zaintzeko laguntzak

Diru laguntza 2021ean jada galdegin dutenentzat, jakin ezazu ordaintzeko eskaera egin dezakezula EHLG-ren laguntzarekin, bete behar den inprimakia eta laguntza eskuratzeko erabakia eskuratu bezain laster.

2022. urterako, proiektu deialdi hau urtarriletik goiti berriz idekiko da eta EHLG-k zure desmartxetan laguntzen ahal zaitu.

Xehetasunak : Guillaume Cavailès, 05 59 37 18 82

- Ardi, ahuntza eta behi laguntzak

Ardi, ahuntz eta behi laguntzen teledeklarazioa idekia da.

- Ardi eta ahuntz laguntzak : galdea 2022ko urtarrilaren 31ko berantetik pausatu behar da.
- Behi laguntza : galdea 2022ko maiatzaren 16ko berantetik pausatu behar da.

Zure doziera betetzeko laguntza behar duzu ?

EHLGra deit ezazu hitzordu bat hartzeko : 05 59 37 18 82